

ARAUDIA

Eguna: apirilak 2.

HERRI LASTERKETA: 6,200 km. Irteera: 11:00etan, San Prudentzio kalean. Lasterketa bukatzeko gehieneko denbora: ordubete eta 15 minutu.

IBILBIDEA: IRTEERA, San Prudentzio k. (Arka plaza), San Prudentzio k., Foru k., Florida k., San Antonio k., San Prudentzio k., Foru k., Florida k., Senda ibilbidea, Fray Francisco ibilbidea, Cervantes ibilbidea, 180º-ko bira Mineraleko parkean, Cervantes ibilbidea, Fray Francisco ibilbidea, Batan ibilbidea, Nieves Cano k., Justo Velez de Elorriaga k., Unibertsitateko ibilbidea, San Antonio k., San Prudentzio k., HELMUGA.

Nahi duen orok parte hartu ahal izango du lasterketan, federatua izan zein ez, betiere 2007an edo lehenago jaiok badira. Gehienez 350 pertsonak parte hartu ahal izango dute.

Arabako Atletismo Federazioko Epaile Batzordeak kontrolatuko du lasterketa.

Zenbakia bularrean jarri behar da, argi ikusteko moduan, tolestu gabe. Zenbakirik ez duten lasterkariek ezingo dute parte hartu, ezta helmugan sartu ere.

Ibilbide barruan, antolakuntzak baimendutako ibilgailuek baino ezingo diote lasterketari jarraitu. Debekatuta dago korrikalariekin batera bizikletan joatea.

Lasterketan parte hartzeak kalte-galerarik edo lesiorik eraginez gero —atletak bere buruari, atletak beste inori, edo beste edonork atletari—, antolakuntzak ez du bere gain hartuko horiekiko erantzukizuna. La Blanca Atletismo Klubak aseguru-poliza bat kontratatua du proba honen erantzukizun zibileko arriskua estaltzeko.

Parte-hartzaile orok, bere parte-hartze hutsarekin, araudi hau onartu egiten du.

IZENA EMATEKO:

Interneten, clublablanca.com webgunean, izena emateko agiria betez eta webgunean bertan ordainduz. **Prezioa: 8 euro. Lasterketa egunean, hasi baino 45 minutu lehenagora arte, 15 euro.**

KATEGORIAK

Gizonezkoen eta emakumezkoen banakakoa eta beteranoak

EPEA

Martxoaren 10tik apirilaren 29ra.

Zenbakiak GAIKAR KIROLAK dendan jasoko dira, dendaren ordutegian, martxoaren 30ean, 31n eta apirilaren 1ean

INFORMAZIOA, La Blanca Atletismo Klubeko telefonora deituta: 656 71 14 61. Probari eta sailkapenei buruzko informazioa, clublablanca.com weborrian.